Estibalitz EZKERRA
Literatura kritikaria

Hari eta oihal

Hegoafrikan oihal txatalez tapakiak egiteko tradizioa ez dator kultura indigenetatik. Herbeheretar kolonoek XVII. mendean beraiekin eramandako arte mota bat da eta 1990eko hamarkadara arte haren ekoizpena oinarri kolonialeko hierarkia ekonomiko eta arrazialek baldintzatuta egon zen. Apartheida amaitu eta gutxira, ordea, dinamika hori aldatu egin zen. Gobernu demokratiko sortu berriak bultzaturiko garapen ekonomikorako ekimenen bidez, tapakigintza mota hori sozioekonomikoki egoera makalean zeuden zona eta taldeengana zabaldu zuten. Jarduera dibertsifikatzeak oihal txatalezko tapakietan irudikaturiko historien dibertsifikazioa ekarri zuen. Artista-aktibisten eta gobernuz kanpoko zenbait erakunderen eskutik, ekimenetako batzuek "memoria oihalen" ekoizpena bultzatu zuten, helburu terapeutikoekin. Alde horretatik, tapakigileek beren eta komunitatearen esperientziak (arrazakeria, xenofobia, polizia indarkeria zein zailtasun ekonomikoei loturiko esperientziak) dokumentatzeko aukera izan dute tapakien bidez.

Tapakigintza ohiturarik ez dago palestinarren artean. Mendeetan eta belaunaldiz belaunaldi tatree dellakoaz –arabieraz "apaintzea" zein "brodatu" esan nahi duen brodatugintza koloretsu eta sinbolikoaz– baliatu dira beren kultura adierazteko zein lurraldearekiko lotura aldarrikatzeko.

Jubilatu aleman baten «karikatura groteskoa» egin du Karlos Linazasorok

"Dusseldorfeko txibatoa" izeneko nobela argitaratu berri du Karlos Linazasorok Erein argitaletxearekin. Karl du protagonista; Estatu espainiarreko hegoaldera bizitzera joan berri den jubilatu alemana da, baina «izaera kartesiarra» berarekin eraman du eta salaketa absurdoak jartzen ibiltzen da.



Karlos Linazasorok «Dusseldorfeko txibatoa» argitaratu berri du. Andoni CANELLADA | FOKU

Alaia SIERRA | DONOSTIA

Ironiaz josita ko nobela dakar Karlos Linazasorok oraingoan ere. "Dusseldorfeko txibatoa" lan berrian, Karl protagonistaren eskutik, jubilatu aleman baten «karikatura groteskoa» egin du. Estatu espainoleko hegoaldera bizitzera joan denean, bertan finkatutakoa Alemaniako ideia eta bizimoduarekin bat ez datorrenez, legearen betearazle lanetan ibiltzen da, salaketak jartzen.

Atzo aurkeztu zuten Donostian Karlos Linazasorok eta Inazio Mujika Iraola editoreak. Mujikak esan zuenez, «esperimentuaren eta parodiaren arteko nahasketa» honek irakurleari barrea eragingo dio, baina «aldi berean ispilua jartzen digu aurrean, gu ez ote garen salaketak egiten dituen Karl hori».

Eguneroko kontuek sortzen dute protagonistaren infernua: kaleetako auto gaizki aparkatuek, parkeko iturri kutsatuek, manifestazio zaratatsuek eta auzokideen utziker iak, besteak beste. Editoreak laburbildu zuenez, «bere bizitza 'reality show' eta fartsa baten artekoa da. Kexaz betea eta errepikakorra da bera, bere burua gurpil zoro bat da».

Karlos Linazasorok berak azaldu zuenez, Karl «putakume» bat da, «argi eta garbi esateko». Faxista, misoginoa eta arrazista da, baina beste alde batetik «tipo jantzia» ere bai. Asko irakurtzen du eta, literatura irakasle izandakoa denez, filosofiaz eta literaturaz aritzen da Linazasoro liburuko orrialdeetan.

Karl izena badu ere, «ez dut uste nire antzik daukanik», argitu du Karlos Linazasoro. «Baina auskalo», gaineratu du «agian gu guztion antza dauka». Batzuetan bere protagonistak gauzak «urrunegi» eramaten dituela azaldu du idazleak; «axolagabekeria eta zikinkeria ezin ditu bere buruan onartu eta polizia lana egiten hasten da, baina gauzak urrunegi eramango ditu eta bizilagunen mehatxuak jasoko ditu, eta alkateak lasaitu egin behar dela esaten dio».

Lehen pertsonan idatzita dago alemanaren ahotik kontatuta, eta kapitulu bakoitzean egitekoren bat burutzen duenez, irakurtzeko «oso erraza eta gazte zein helduentzat» aproposa da, idazlearen ustez. Kapituluak laburrak dira, esaldiak motzak, elkarrizketa asko dago eta «gidoi baten itxura» dauka.

IRAKURTERRAZA

Kapitulu bakoitzean egitekoren bat burutzen duenez, irakurtzeko «oso erraza eta gazte zein helduentzat» aproposa da, Linazasororen ustez. Atal laburrak, elkarrizketa asko eta esaldi motzak ditu.

Errealitatea Linazasororen helburuetako bat eleberri honekin errealitateak fikzioa gainditzen duela frogatzea izan da. Aurkezpenean jakinarazi zuen benetan gertatutako istorio batean oinarritu dela Karli bizitza emateko, egunkari-txatal batetik abiatuta, zehazki; jubilatu ondorengo sei urteetan bere herrian 30.000 salaketa jarri zituen gizon baten berri ematen zuen. «Sekulako kaosa sortu zuen, ezin zituztelako guztiak kudeatu», gaineratu zuen Linazasorok.

Oraingo honetan helduentzako eleberria aukeratu du, baina haurrentzako eta gazteentzako liburuak, poesia, antzerkia, ipuinak eta beste nobela batzuk idatzi izan ditu filosofian lizentziadun Karlos Linazasoro tolosarrak; besteak beste, "Oihan txiki baina txukun batean", "Bota gorriak" eta "Itoko dira berriak" lanen egilea da.